

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

GIZON KLASEKO SOLDADUAK  
ERTZAINZAN? **MADDI TXINTXURRETA > 9**

## SUDANGO INFERNUA:

MILAKA BIKTIMA UZTEN ARI  
DEN GERRA AHAZTUA > 4

2024ko abuztuaren 31 | XVIII. urtea • 891. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## GIZARTELAB, AHULTZEN ARI DEN ZEMENTU SOZIALA INDARTZEKO ERRONKA

DUELA BOST URTE JARRI ZEN  
MARTXAN GIZARTELAB,  
JENDARTEAREN ERRONKEI  
ERANTZUTEKO GAITASUNAK  
INDARTZEA HELBURU DUEN  
EUSKO IKASKUNTZAREN  
PROIEKTUA. KORO MURO ETA  
AUXKIN GALARRAGA  
ARDURADUNEKIN IZAN GARA,  
BERAIEN LANA HOBETO  
EZAGUTZEKO. > 10 Jon URBE | FOKU





**Sudango gerra luze bezain ahaztua milaka biktima eta gosete izugarria uzten ari da** 04

**Ikusmira: Rohingyaen genozidioa errepikatzeko arriskua** 07

**Elkarrizketa: Koro Muro eta Auxkin Galarraga, GizarteLab proiektuko arduradunak** 10

**Gertuko Planak: Baionako Euskal Museoa, euskal kultura eta historiaren gordailu** 14

**Haurren gehiegizko autoestimua arriskuak** 18

**Juantxo Egañaren behatzulotik** 31



## SINADURAK:

- 03 **Oier Imaz Alias:** Mandatua
- 08 **Saioa Aginako Lamarain:** Mendekotasun emozionala
- 09 **Maddi Txintxurreta:** Gizon klaseko soldaduak Ertzaintzan?
- 16 **Leire Lareki Sanchez eta Eneko Mendiluze Plaza:** Aro digitaleko bikote eredu ugariak
- 17 **Xabier Izaga:** Beldurtuta bizi den mamua eta beste mamu batzuk
- 20 **Amaia Ballesteros**
- 21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Bungalow batean
- 21 **Miren Azkarate Badiola:** Zorionak, Magale!
- 22 **Maitane Martinez Eguiluz:** Mundu guztia konektatuta dago



{ datorrena } Oier IMAZ ALIAS

# Mandatuak

«Forma edukiaren ageriko aldea besterik ez da».  
(Joana Imaz, 2019)

**T**he Nation” aldizkariak ekainean argitaratu zuen “*The Plot against America*” zenbaki berezia. Bertan, “*Project 2025*” deituriko proposamena aztertu zuten hainbat egilek. Proiektuaren oinarria “*Mandate for Leadership: The Conservative Promise*” dokumentua da. Dokumentuaren 900 orrialdeetan zehar, *The Heritage Foundation*-ek eskuinaren baliokin lerraturiko balizko gobernuaren ekintza plana zehazten du hainbat arlotan: exekutiboaren egitura, osasun, justizia, klima eta migrazio politikak edo harreman diplomatikoak eta segurtasun nazionala. Fundazioa 1979an sortu zen eta mandatuaren lehen edizioa (20 liburuki, 3.000 orrialde, 2.000 proposamen, 1981ean argitaratua) Reaganen administrazioaren bide-orria kontsideratu izan da.

Edukiari erreparatuta, hauteskunde osteko balizko agertokiak irudikatzeko baliatzen du “The Nation”-ek ariketa, mandatuak biltzen dituen proposamenetan oinarrituz. Proposamenak ez dira berriak. Lidergo presidentziala indartzea, gobernu federala ahultzea, kontrol mekanismo independenteak ezabatzea, migrazio politikak gogortzea... Baina nabarmenak dira proposatutako neurrien eskala eta inpaktua. Adibidez, AEBek gas, petrolio eta ikatz erreserbak garatzeko duten betebeharrak azpimarratzen du *The Heritage* fundazioaren txostenak. Aldiz, proposatzen diren neurrien inplementazioak, Bill Mackibben kazetariak dioten moduan, lau bilioi tona emisio gehiago ekarriko lituzke hurrengo legegintzaldian. Laburbilduta, neurriaren inplementazioak eta inpaktuaren eskalak atzerazinak diren ondorioak ekarriko lituzkete.

Formari dagokionez, kezka nagusia da proposamenak zehazten duen bide-orriak demokraziaren tres-

nak baliatzen dituela, baina hura ahultzeko. Bestela esanda, lidergorako mandatuak prozedura demokratikoen autoritatearen mugak gainditzen ditu. Noren izenean? “*Family authority is the model for the nation*” esaldiarekin laburbiltzen du “kontserbadoreen promesak”, Kim Phillips-Fein-ek, bere artikuluan. 2023an argitaraturiko mandatuak, aurrekoekin alderatuta, estatuaren aurkako oldartzea hauspotzen duela dio kazetariak, baina merkatu librearekin batera, pertsonen arteko lotura “naturalak” (familia, komunitatea) eta horien gainean eraikitako autoritate moralaren indarra aldarrikatzen ditu. Horiek lirateke Amerika berriz ere bikain bihurtzeko oinarritzko zutabeak.

Bestela esanda, “2025 proiektuak” ezartzen duen mandatuaren forma edukiaren ageriko aldea besterik ez da. Gutxi batzuen eta gutxi batzuentzat. Txostenaren egileek estatuaren, burokraziaren, *stablish-*

Proposamenak zehazten duen bide-orriak demokraziaren tresnak baliatzen ditu, baina hura ahultzeko. Lidergorako mandatuak prozedura demokratikoen autoritatearen mugak gainditzen ditu

*ment*-aren kontra matxinatzeko deia luzatzen dute eta, horien tokian, ordena “naturala” aldarrikatzen dute: merkatu librean, lehia, eta familian eta komunitatean, babes. Bistan denez, familiaren eta komunitatearen adierazpen “naturala”, Trumpen jarraitzaileen ulerkeran, oso baztertzaila da: bat eta bakarra. Baina, familiaren eta komunitatearen defentsan aritzeko mandatuak ematen dien autoritatea, aldiz, transzendentala da: denentzako iguala. Agian horregatik esan zidan, duela gutxi, hango egoera ondo eza gutzen duen lagun batek: «Ez dakit zerk kezkatzen nauen gehiago, Trumpek hauteskundeak irabazteak edo galtzeak...» •



# SUDANGO INFERNUA

## Milaka biktima eta gosete izugarria uzten ari den gerra ahaztua

AFRIKA / Ibai AZPARREN

Iazko apirilaren 23an, Gobernuak zuzendutako Sudango Indar Armatuaren eta Laguntza Azkarreko Indarren (RSF) arteko tiroketa batez, Khartum hiriburuan, biztanleria zibilaren babesaren kolapsoa eragin duen gerra hasi zen. Orduz geroztik, milaka pertsonak indarkeria, hilketak, tortura eta sexu-indarkeria jasaten dituzte egunero Sudanen, osasun-langileen eta instalazio medikoen aurkako etengabeko erasoen artean.

«Bonbak nonahi erortzen ziren eta soldaduak etxeetan sartzen ziren. Jende asko ikusi dut hilda. Nire etxetik gertu ere bonba bat erori zen. Familiako bost kide galdu nituen: bi emakume eta hiru gizon. Bonba bat erori zitzaien etxean lotan zeudenean. Denak hil ziren», kontatu zien Sudango errefuxiatu batek Mugarik Gabeko Medikuei (MSF) Khartumeko borroken lehen orduei buruz.

Erakunde horrek "Pertsonen aurkako gerra, gatazkaren giza kostua eta Sudango indarkeria" txostena argitaratu zuen uztailean. Bertan, Armadak, RSFk eta haien aliatuek herrialde osoko biztanleei indarkeria beldurgarria eragiten dietela nabarmendu du. Izan ere, gerrak biktima kopuru katastrofiko eragin du, baina zauritutako edo hildako pertsona guztien kopuruaren inguruko kalkuluak ez dira gutiz zehatzak momentuz.

Ia urte eta erdiz, Armada eta RSF aurrez aurre izan dira Khartumen eta inguruko hirietan, eta bien artean gutxienez 14.000 pertsona hil dituzte, NBERen arabera. Tom Perriello AEBetako berriemaile bereziak, ordea, egungo kalkuluak hamar aldiz biderka ditzaketen

zifrak aipatzen ditu: gerraren hasieratik 150.000 pertsona hil dira herrialdean. Gainera, gerrak desplazatuen munduko olaturik handiena eragin du, zortzi milioi pertsona baino gehiagok etxetik ihes egin behar izan baitute (bi milioik baino gehiagok muga zeharkatu dute inguruko herrialdeetara). Gainera, NBERen kalkuluen arabera, 25 milioik –herrialdeko biztanleriaren erdiak– laguntza humanitaria behar dute lehenbailehen.

MSFk Sudango zortzi estatutan egiten du lan, eta txosten horretan adierazi duenez, bere laguntza jasotzen duten ospitaleetako batean soilik, Omdurmango Al Nao ospitalean, Khartum estatuan, gerrako 6.776 zauritu artatu zituzten 2023ko abuztuaren 15etik 2024ko apirilaren 30era bitartean. Horrek esan nahi du egunean 26 pertsona artatu zituztela, batez beste. Erakundeak milaka paziente tratatu ditu gatazkarekin lotutako lesioengatik herrialde osoan; gehienak, leherketek, tiroek eta labankaderek eragindakoak.

Al Nao ospitaleko osasun-langile batek hiriko gunebatean izandako bonbardaketa baten ondorioak deskribatu zizkion MSFri: «20 pertsona inguru hil ziren ospitalera iritsi eta handik gutxira. Izan ere, batzuk hilda iritsi ziren.

Gehienak eskuak edo hankak zintzilik iritsi zitzaizkigun, moztuta. Kasu batzuetan, larruazalaren zati txiki batek baino ez zituen gorputz-adarrak lotuta. Paziente bat hankarik gabe iritsi zen; harekin zihoan pertsonak falta zitzaion gorputz-adarra zekarren eskuan».

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, osasun-zen-

troen %70-80k ez dute funtzionatzen, eta horrek esan nahi du herritarrentzako osasun-arreta «oso mugatua» dela, MSFren arabera. Gerraren krudeltasunaz gain, herrialdea –45,6 milioi biztanle, gehienak musulmanak–, munduko pobretuenetako bat da, eta larrialdi klimatikoak gehien mehatxatzen dituenetako bat. Beti potentzien atentzioa erakarri du bere baliabideengatik, batez ere urre eta goma arabiaragatik (munduko lehen ekoizlea da Sudan; akaziatik ateratzen da eta koka kolaren funtsezko osagaia da).

### SEXU-INDARKERIA...

MSFren txostenak sexu- eta genero-indarkeriari buruzko datu ikaragarriak ditu, bereziki Darfurren gertatu direnak. Erakundeak, iazko uztaile eta

2023ko azaroaren hasieran gatazkak eztanda egin zuenean etxetik ihes egin behar izan zuen familia bat. MSF





abendua bitartean, Sudango mugatik gertu dauden Txadeko errefuxiatu-esparruetan sexu-indarkeriatik bizirik atera ziren 135 pertsonari egindako inkestaren arabera, %90ek erasotzaile armatu baten abusuak jasan zituen –%50ek bere etxean– eta %40k, hainbat erasotzailerena.

Ondorio horiek bat datoz Sudanen geratu diren eta bizirik atera diren pertsonen testigantzekin, eta erakusten dute emakumeen aurkako indarkeria nola gertatzen ari den haien etxeetan eta handik ihes egiteko desplazamenduetan.

Honela deskribatu zituen MSFko paziente batek Gedarefeko gertaerak 2024ko martxoan: «Gure auzoko bi neska gazte desagertu ziren. Gero, nire anaia bahitu zuten, eta etxera itzuli zenean, esan

**Tom Perriellok, AEBek Sudanera bidalitako mandatari bereziak, ohartarazi duenez, litekeena da 150.000 pertsona inguru hil izana 2023ko apirilean hasitako gerran**

**Ihes egitera behartu dituzten pertsonen kopurua zortzi milioitik gorakoa da, eta horietatik bi milioik Sudango mugaren bat zeharkatu dute**

zuen bera bahitu zuten etxe berean zeudela bi neskak, eta bi hilabete zeramatzatela han. Esan zuen entzun zuela gauza txarrak egiten zizkietela, neskatoei egiten dizkieten gauza txar horiek».

#### ...ETA INDARKERIA ETNIKOAK

Txostenean jasotako testigantzek, halaber, Darfurreko biztanleriaren aurkako indarkeria etniko selektiboa aipatzen dute. Nyalako (Hegoaldeko Darfur) biztanleek deskribatu zuten nola, 2023ko udan, miliziaik etxez etxe ibili ziren, arpilatzen eta pertsonak jotzen eta hiltzen, fokua masalitengan eta etnia ez-arabiarretako beste pertsona batzuegan jarrita.

«Gizonak pistolekin armaturik eta RSFren kamuflajeaz jantzita zihoazen... Behin baino gehiagotan sastakatu ninduten eta lurrera erori nintzen. Etxetik irten zirenean, lurrean etzanda nengoela, begiratu zidaten. 'Hil egingo da, ez galdu zuen balak', esaten entzun nien, haietako batek zapaltzen ninduen bitartean», kontatu zien Nyalako paziente batek MSFko taldeei.

Izan ere, Sudango Armadak eta RSF indar paramilitarrak duten gatazkaren barruan, Human Rights Watch GKEak azken horiei leporatu die «garbiketa etnikoa» burutzea Geneina bezalako hirietan



MSF erakundeko kide bat, Sudango osasun-zentro batean izandako kalteak ebaluatzen.  
MSF

–Mendebaldeko Darfur estatuko hiriburua–. «Geneinatik heldu ziren zauritu askok esan ziguten miliziano arabiarrek, bereziki, haien aurka zihoazela masalit etniakoak zirelako. Tiro egiten zieten. Kontatu ziguten indarkeria horrek herri eta kontrolpostuetan jarraitu zuela Txaderako errepidean zehar. Masalit komunitateko gizonak tiroen jomuga ziren sistematikoki», adierazi zuen Txadeko MSFko Larrialdi Programen arduradunak.

#### ARPILATUTAKO OSPITALEAK

Gatazka osoan, ospitaleak modu sistematikoan arpilatu dituzte. Ekainean, Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi zuen, iristeko zailak diren eremuetan, osasun-zentroen %20tik %30era bitartean soilik

ari zirela funtzionatzen, baina gutxieneko zerbitzuekin.

Ildo horretan, MSFk, gutxienez, 60 indarkeria-gertakari eta langileen, ondasunen eta zentroen aurkako erasoak dokumentatu ditu. Omdurmango Al Nao ospitalea hiru aldiz bonbardatu dute, eta maiztzean airez egindako eraso batek bi haur hil zituen El Fasher-eko Baker Nahar ospitale pediatrikoko sabaia erori ostean. Ospitalea itxi egin behar izan zuten.

Sistema sanitarioa herritarren beharrak asetzen ahalegintzen den arren, sarritan erakunde humanitario eta medikoei laguntza ematea eragotzi zaie. Agintariak langile humanitarioentzako bisak errazago ematen hasi diren arren, bizi-arreta medikoa emateko saiakerak blokeatze



burokratikoek oztopatzen dituzte aldizka. Adibidez, funtsezko langileei bidaia-baimenak emateari uko egiten diote, eta hornidurak sartzea eragozten dute.

«Sudango Armadaren eta paramilitarren arteko indarkeria areagotu egiten da eragozpen horien ondorioz. Jendeak gehien behar dituenean, zerbitzuak blokeatu, oztopatu eta itotzen badira, zigiluak eta sinadurak Sudango balak eta bonbak bezain hilgarriak izan daitezke», ohartarazi zuen Vickie Hawkins MSFko zuzendari nagusiak.

«Gerra aurrera eramaten duten alde guztiei dei egiten diegu laguntza humanitarioa areagotzea errazteko eta, batez ere, herritarren aurkako zentzurik gabeko gerra honi amaiera emateko, herritar guztien, azpiegitura zibilen eta etxeen aurkako erasoak be-

rehala bertan behera utziz», ondorioztatu zuen Hawkinsek.

#### GOSETEA

Hamabost hilabete baino gehiagoko gerraren ondoren, gatazken, desplazamenduen eta laguntza humanitarioa banatzeko zailtasunen konbinazioak gosetea eragin du Sudango Iparraldeko Darfur eskualdean, ehunka mila desplazatu dauden errefuxiatu-esparruetan.

**Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi zuen, iristeko zailak diren eremuetan, osasun-zentroen %20tik %30era bitartean soilik ari direla funtzionatzen**

**Haurren %30ek, gutxienez, malnutrizioa dute, eta 10.000tik bi hiltzen dira egunero, erabateko ahuleziaren edo malnutrizioaren eta gaixotasunen interakzioaren ondorioz**

Khartumen aireko ikuspegia, borrokak eta indarkeria jasotzen dituena. MSF

Unicefeko Gosetea Berrikus- teko Batzordeak (FRC) adierazi du Zamzamen, 400.000 desplazatu baino gehiago dituen errefuxiatu-eremuan, gosetearen lehen deklarazioa egin duela zazpi urte baino gehiagotan. Duela 20 urte monitorizazio-sistema sortu zenetik, mota horretako gosetearen deklarazioa egiten den hirugarren aldia da. FRCK ohartarazi du Sudango beste alde batzuek gosete arriskua dutela neurri zehatzak hartu ezean.

Gosete-deklarazioak komunitate humanitarioaren beldurrak berresten ditu, eta ekaineko azterketa bati jarraitzen dio. Azterketak elikagai- eta nutrizio-segurtasunean gainbehera dramatikoak erakutsi zuen, 755.000 pertsona hondamendi-egoeran baitzeuden.

Unicefek eta Nazio Batuen Erakundearen Elikagaien Munduko Programak (IEP) ohartarazi dute gero eta arrisku handiagoa dutela Sudango biztanleek –berezi, haurrek–, gatazka-guneetan (Darfur, Khartum, Kordofan eta Al Jazirah) harrapatuta dauden komunitateei premiazko laguntza ematen ez bazaie. Egoerak kritikoa izaten jarraitzen du, eta kalkuluen arabera, 730.000 haurrek desnutrizio larria jasango dute aurtan.

Gosete-deklarazioak esan nahi du pertsonak, haurrak barne, hiltzen hasi direla eta horrekin lotutako beste gaixotasun batzuk garatzen ari direla. Duela 20 urteko Darfurreko krisian ez bezala, gatazkak eragindako gose-krisi hau herrialde osoan zehar hedatu da, Khartum hiriburua eta Jazirah estatua –lehen Sudango bihitegia zena– barne.

MSFk bezala, Unicefek dio sarbide humanitario oso mugatua dela Zamzameko gosete-

egoeraren arrazoi nagusietako bat. Uztailean El Fasherren kontsumorako prest zeuden elikagai terapeutikoen hornidura nahikoak entregatu bazituzten ere, desnutrizio larria duten 4.000 haur tratatzeko sarbide seguru eta iraunkorrik ez izateak esan nahi du beharrak izugarriak direla oraindik, eta hornidura humanitarioak ematen jarraitzeko gaitasuna ezin dela bermatu.

#### SARBIDE ZAILA

2024an, IEPk lau milioi barne-desplazatu eta errefuxiatu baino gehiagori eman die elikagai-laguntza Sudan osoan –ekainean bakarrik 1,7 milioi ri–. El Fasher, Khartum eta, orain, Sennar estatuan borrokak areagotu ahala, komunitate humanitarioak laguntza handia ematen ahalegintzen da. Hala ere, euri-estazioak beste konplexutasun maila bat dakar, errepideak urez bete eta igaroezin bihurtzen baitira.

Sarbide zaila duten eremuetan, hala nola Khartum hiriburuan, IEPk sukalde komunitarioak babesten ditu tokiko bazkideen bitartez eta laguntza eskudirutan zabaltzen du, eta Khartumeko egoiliarrentzako auto-erregistroko proiektu pilotu bat martxan jarri du.

«Sudango leku batzuetan zabaltzen ari den goseteak sufri-mendu ikaragarria eragiten die dagoeneko gerra lazarriaren eragina jasaten ari diren haur eta familiei», adierazi zuen Unicefeko zuzendari exekutibo Catherine Russelek. Eta gaineratu zuen: «Ibilbide guztiak erabili behar ditugu, gatazkaren lehen leerroak barne. Haurrek ezin dute itxaron. Babesa, oinarrizko zerbitzuak eta, batez ere, su-etena eta ba-kea behar dituzte».





Zikri MAULANA | EUROPA PRESS

## IKUSMIRA

# ROHINGYEN GENOZIDIOA ERREPIKATZEKO ARRISKUA

Goiko irudia 2020ko ekainaren 25ekoa den arren, gaurkotasuna du oraindik ere. Rohingyaen kontrako genozidioaren zazpigarren urteurrena bete denean, Myanmar eta Bangladesh banatzen dituen Naf ibaia zeharkatzen jarraitzen dute ihesi edo, argazkian bezala, Indonesiarako bidea hartzen dute. Iaz, 2.300etik gora erre-fuxiatu rohingya iritsi ziren Aceh-ra. Myanmarrerako Nazio Batuen Erakundearen erelatoreak, Thomas Andrewsek, 2017ko abuztuan hasitako genozidioa berriro ez errepikatzeke neurriak hartzea exijitu berri du Segurtasun Batzordean. Myanmarreko Indar Armatuak 10.000 rohingya hil zituzten eta aste gutxitan 700.000 zibilek Bangladeshera ihes egin behar izan zuten. Andrewsek ohartarazi duenez, «zazpi urteren ondoren, historia errepikatzen ari da Rakhine estatuan. Orduan bezala, soldaduek zibilei eraso egiten diete eta hil eta kanporatzen dituzte». Horrez gain, Batzorde Militarrek rohingyak bortxaz errekrutatzen ditu Arakan gerrillaren kontra borrokatzeke eta horiek rohingyen zenbait herrixkari su eman diete. *Ainara LERTXUNDI*



**Saioa AGINAKO LAMARAIN**  
Psikoterapeuta

## Mendekotasun emozionala

**B**adakigu: batzuetan, maitemintzeak gainezka egiten digu eta menderatu egiten gaitu. Ez ditugu mugak ikusten, eta gure burua sentimendu-uholde horretara eramaten uzten dugu, non gure mundu osoa beste pertsonarengan ardaizen dugun, geure burua bigarren mailan utzita. Komunikabideak, jolasak, galdera ez oso egokiak, ipuin herrikoiak, tradizioak, gutxi hausnartutako aholkuak... Ez dute zalantzarako tarterik uzten: bikote-harreman bat eraiki behar dugu osorik sentitzeko. Nola bestela?

Ez da sekretua modu kontzientean edo ez hain kontzientean mendekotasun-harremanak sustatzen dituen gizarte batean bizi garela, bikote-harreman baten azken zentzua desitxuraturuz: nahi izateagatik, eta ez behar izateagatik, konpartitzea eta elkar-tzea. Harreman iragankorrek eta erantzukizun afektibo eskasak markatutako gizarte batean, pertsona askok pairatzen dute egoera hori.

**Emozionalki besteen mende egotearen arazoa da, behar dugun arreta edo maitasun neurrigabea jasotzen ez bada, norberaren balioari eta besteek diguten estimuari buruzko zalantza irrazionalak agertzen direla, eta horrek eragina izango duela gure autoestimuan eta sentitzen ditugun emozioetan.** Etengabeko arreta, zaintza eta afektu premia bat, kaltetuen osasun mentalean ondorio larriak dituen eta haien maitasun-, adiskidetasun- edo familia-harremanetan ager daitekeena.

Baliteke mendekotasuna duten pertsonen bikotean, familian edo gizarte-ingurunean bakarrik ez izatea, baizik eta eremu horietako batzuetan:



Mendekotasun emozionala saihesteko heztea, osasungarria izateaz gain, posible ere bada. GETTY

gehien maite dutenekin harremanak izateko beste modurik ezagutzen ez dutela uste dute. Edozein harreman motatan, mendekotasuna zantzu batzuetan nabaritzen da, eta aztarna horiek adierazten dute pertsonak neurritz kanpoko atxikimendua duela bikotekidearekin, lagunarekin edo senidearekin. Adibidez, abandonatua izateko aukerari buruz gehiegizko kezka edota portaera otzanak izatea, beste pertsonarengandik urruti egonda gutxiegitasun sentimenduak bizitzea, konplimendu konpulsiboa edo mugak ez ezartzea.

Lehenengo atxikimendu-figurekiko elkarreraginek helduaroko behar afektiboen sistema antolatzen dutela ondorioztatu zen. Bestela esanda, hel-tzean, haurtzaroan ikasitako eta indartutako elkarrekintzak erakusten ditugu. Hala ere, esperientzia goiztiarrak ez dira mendekotasun emozionala garatzeko behin betiko epaia: gizabanakoak helduaroko dituen esperientziak ere kontuan hartu beharreko beste pisu bat baitira, beste faktore askoren artean.

**Hala ere, ildo horretatik, mendekotasun emozionala saihesteko heztea, osasungarria izateaz gain, posible ere bada.** Haurrak heldu independente bihurtzea ez da errealista, hori bera sustatzen ez bada. Era berean, litekeena da beren emozioak bizitzen, ulertzen eta adierazten dakiten gurasoekin hazten diren seme-alabak gaitasun horietan askoz ere trebeagoak izatea. Afektua erakustea, prest egotea, autonomia eta erabakiak hartzea sustatzea eta nor bere burua zaintzea bezalako aurretiko jarrerak lagungarriak izaten dira ikaskuntza horretarako.

Gure independentzia emozionala mantentzeak esan nahi du ez dugula geure burua galduko besteekin gaudenean edo maitemintzen garenean. Adituen esku-hartzeak ikuspegi objektiboa eman diezaguke, baita gure ongizatea indartu eta pertsonen arteko harremanak hobetuko dituzten teknikak eta tresnak ere. Halaber, terapien gure emozioak adierazteko trebetasunak ikas daitezke, muga osasungarriak ezarri eta autoestimu sendagoa eraikiz. •



{ asteari zeharka begira } **Maddi TXINTXURRETA**

# Gizon klaseko soldaduak Ertzaintzan?

S arraskijale eskuindarrak gustura arituko dira egunkari batetik bestera, irratitik telebistara eta Instagrametik Tik Tokera albistea mokokatzen. Dударik gabe, goxokia da komunikabideentzat eta putre oka-zaleentzat: Erregistro Zibilean sexu aipamena aldatu duen eta legeak emakumetzat hartzen duen pertsona batek labanarekin mehatxu egin dio bikotekideari, bi umeen aurrean. Gizon klasea azkar berotu da eta gogorarazi digu abisatuta geundela, Trans Legeak arriskuan jarriko dituela emakumeak, gizon "horiek" (*not all men*) nahita eta nahieran erabiliko dutela andreei eraso egin eta zigor gogorrenak saihesteko. Agian, gogoratu behar da gizonak sekula ez dutela Trans Legea behar izan eraso egiteko.

Donostiako Txomin Enea auzoan eraso egin zuenak lege-iruzurra egin ote zuen ala ez argitzeko dago. Baina imajinatu dezagun iruzur egin zuela; ez da zaila, zantzu batzuek hori pentsatzera bultzatzen baikaituzte, eta ez, «emakumeen janzteko eta jokatzeko erarik ez izateak» ez luke izan beharko alerta pizteko zantzua. Trans bizipenak estereotipoen arabera lerrokatzen amaitu dugu berriz.

Badago, ordea, iruzurra-  
ren teoria indartzen duen beste kontu bat: NAIZ eta GARAK jasotako testigantzen arabera, eraso egin zuen pertsonak lotura izango luke zenbait talde ultraeskuindarrekin, zeintzuk ez diren bereziki iaioak trans errealitateak ulertzen eta haien eskubideak defendatzen. Horrek beste galdera batera garamatza, betiere imajinatzen badugu iruzurra egin zuela: zer helbururekin egin zuen?

Komunikabideek aukera bakarra dute kontuan, eta Fiskaltza ere norabide horretan ikertzen ari da, izendapena aldatu aurretik ere bikotekideari tratatu txarrak

ematen zizkiola susmatzen baitu. Hori da hipotesi nagusia: aurretik pentsatuta bikotekideari eraso egingo ziola, sexu izendapena aldatu omen zuen, genero indarkeriaren partez zigor apalxeagoak dituen etxe indarkeria egotz ziezaioten.

Baina, egiaz, kategoria bateko eta besteko delituen zigorrak «ez dira oso desberdinak», Juan Calparsoro Gipuzkoako fiskal nagusiak adierazi zuen moduan. Gainera, 2023ko martxotik indarrean den Trans Legeak zehazten du ezinezkoa dela erregistroko sexu-alaketaren aurreko araubide juridikoa saihestea; hau da, egiaztatuko balitz Erregistro Zibilean aldaketa egin aurretik tratatu txarrak ematen zizkiola bikotekideari, genero indarkeriagatik ikertuko lukete.

Bada, segi imajinatzen, zer helbururekin aldatuko luke sexu aipamena? Tik Tok, Youtube, X edo Instagramen aurkitu daiteke beste teoria bat, erasotzailearen

Bada talde bat, aurrerapen feminista oro arbuiatzen duena eta identitate maskulinoa defendatzeko prest dagoena, eskubidetzat dituzten pribilegioak bere horretan mantendu daitezzen

ustezko joera ultraeskuindarrekin koherentea dena: «sistema feminista» arrakalatu nahi duen gizon klaseko soldadua. Bada talde bat –gurean txikia, zorionez–, aurrerapen feminista oro arbuiatzen duena eta identitate maskulinoa defendatzeko prest dagoena, eskubidetzat dituzten pribilegioak bere horretan mantendu daitezzen. Hipotesi horrek zentzua izango luke erasotzailea ez balitz Ertzaintzako agentea, jakina baita instituzio horrek behar beste neurri hartzen dituela bere lerroetan ultrarik sar ez dadin. •

# «Lehen komunitatea osatzen zuten loturak ahultzen ari dira, zementu soziala berreskuratu behar dugu»

**E**usko Ikaskuntzaren proiektua da GizarteLab. Badi-ra bost urte mar-txan jarri zenetik eta dozena bat herritara iritsi da. Jendarteak dituen erronkei –demografi-koak, aniztasunarenak, tekno-logikoak...– erantzuteko gaitasuna indartzea da erronka. Gaitasun bigunetan jartzen da arreta, adimen emozionalean, komunitatea josten dutene-tan, horiek baitaude egunotan herdoilduen.

## Zer da GizarteLab?

[Auxkin Galarraga]: Guk esaten dugu laborategi mugikorra dela. Batez ere, udalerrietan eta eremu lokalean dauden arazo eta erronkei berrikuntza sozialaren bitartez erantzuteko tresna edo baliabidea da, komunitateak aktibatu eta erronka horiei aurre egiteko gaitasunak lantzerantz bideratutako laborategia.

## Behar edo gogoeta batetik sortuko zen, ezta?

[Koro Muro]: Abiapuntu nahi-ko bitxia dauka. 2019an Gipuzkoako Foru Aldunditik eskatu ziguten erronka demografi-koaren inguruan lanketa bat egiteko. Eusko Ikaskuntzak eta Aldundiak hitzarmen bat daukate. Erronka demografikoa –oso eremu zabala eta erpin anitzekoa– zahartzaroarekin lotu nahi zuten. Gauza jakina da populazioa gero eta gehiago zahartzen ari dela. eta hortik bideratu nahi zuten proiektua. Hasierako bilera batean, honako hau planteatu ziguten: esperimentala den zerbait nahi dugu, zahartzearekin zeri-kusia daukana, baina zaha-

rrik gabe eta zahartzarora aipatu gabe. Hori izan zen gure lehen erronka.

Idea horiei bueltaka sortu zen proiektua. Ikusten genuen gaur egun ditugun erronka ugarien aurrean, gaitasun profesionalak edo intelektua-lak baditugula, baina askotan gaitasun bigunak falta zaizki-gula, bizikidetzan laguntzen dutenak eta komunitatea egi-ten dutenak. Finean, adimen emozionala ahulduta edo herdoilduta dugula konturatu gi-nen. Hortik abiatuta, gaitasun horiek lantzeko trebakuntza bat egitea pentsatu genuen, zeharka, oraindik zaharrak ez diren pertsonekin, zahartzaroari aurre hartzeko. Lehen abiapuntu hori 45-55 urte bitarteko jendearekin izan zen, nolabait zahartzaroari begira dauden erronkei aurrea hartzeko gaitasunak garatzeko. Hainbat udaletan eskaintza egin genuen, eta azkenean, Legazpiko Udala izan zen ait-zindaria. Bertan egin genuen lehen proba pilotua. Guk jarritako irizpideak kontuan hartuta, Udala arduratu zen taldea osatzeaz; 45-55 urte bitartekoak, ahalik eta talde anitzena, genero ikuspuntu-a kontuan hartuta eta, guretzat oso garrantzitsua zen baldintza, Udaleko kolore guztietako talde politikoen parte hartzearekin. Legazpi-ko Udalak oso lan ona egin zuen taldea osatzen.

## Bitxia da 45-55 urte bitarteko herritar talde bati zahartzaroaz hausnartzeko proposamena luzatzea.

[K.M.]: Hain zuzen ere, GizarteLaben erronka zahartzaroari aurre hartzea eta nolabaiteko

gaitasun batzuk lantzea da. 65 urte badituzu, nahiz eta ondo egon, dagoeneko berandu da gauza batzuetarako. Nolabait jendea prestatu nahi dugu. Nolako zahartzarora izan nahi dugu? Nola ikusten duzu zure burua zahartzaroan? Adin batzuetan galdera horiek krakatekoa eragiten dute, baina beharra dago horri buruz hausnartzekoa. Txipa aldatu beharra dago.

[A.G.]: Bazegoen diagnostiko orokor bat: erronkak gero eta konplexuagoak dira; maila lo-kalean erronka horiei aurre egiteko baliabideak, gaitasunak eta tresnak nahiko urriak dira; badator agenda berri bat erronka demografikoekin, aniztasunarekin, zahartzaroarekin... lotuta. Ikusten zen udalek tresna eta gaitasun berriak behar dituztela. Udalerrien indargune nagusietako bat herritarrak dira. Horregatik planteatu zen berrikuntza sozialen teoriak eta trantsizioaren teoriak esaten zutena: herritarren eta eragile sozia-len eskuetan dauden tresnak eta indarrak biderkatu egin behar dira. Zientzia eta teknologian dirua inbertitzen den bezala, gizartean ere inbertsioa egin behar da. Eragile sozialak indartu egin behar dira. Hori defendatzen dute berrikuntza sozialen teoriak. Eta, bestetik, trantsizioari erantzuna eman nahi bazaio, aurrea hartu behar zaiola eta prestatu egin behar dela, bestela trantsizioak irentsi egingo gaituela. Prestatzen ez bagara, beranduegi izango da. Besteak beste, mahai gainean ditugun gaietako asko –zahartzarora, zaintza, aniztasuna...– aspalditik datoz.

## KORO MURO ARRIET ETA AUXKIN GALARRAGA EZPONDA

### GIZARTELAB PROIEKTUKO ARDURADUNAK

Eusko Ikaskuntzaren GizarteLab proiektuko arduradun teknikoa eta arduradun zientifikoa dira, hurrenez hurren. Egungo jendartean eskasten ari den zementu soziala indartzea da erronka.





Argazkiak: Jon URBE | FOKU

Ikusten ari ginen bazetozela, baina erantzuna berandu iristen ari da.

Erronka orokorra da, baina herrian eta tokian-tokian izaera espezifikoak dauka. Legazpin dagoen zahartzaroa edo Tolosan dagoena ez dira berbera. Beraz, udalerrri bakoitzak bere erronka espezifikoak dauzka, baina erronka horiek badaukate irakurketa orokor bat. Goazen tresnak garatzera erronka horiek garatzeko.

**Legazpiko proba pilotua aipatu duzue. Nolako izan zen?**

*«Herritarren eta eragile sozialen eskuetan dauden tresnak eta indarrak biderkatu egin behar dira. Zientzia eta teknologian dirua inbertitzen den bezala, gizartean ere inbertsioa egin behar da»*

[K.M.]: Lehendabizi metodologia bat garatu genuen. Martxan jarri bezala eredu hori moldatzen, hobetzen eta tokian tokira egokitzen joan da. Baina metodologia propio bat sortu dugu. Gaitasunak lantzen ditugula esaten dugunean, badirudi klase magistralak ematen ditugula: 'gaur enpatia landuko dugu'. Ez, ez da horrela. Talde guztiaren ekarpenak jasotzen ditugu, eta tailer horietan lau adimen mota garatzen ditugu, baina ez linealki, zeharka baizik. Adimen emozionala da horietako

bat, ahaztu samar dugulako eta oso beharrezkoa dela uste dugulako. Bigarrenik, adimen prospektiboa, etorkizunean pentsatzen jarrarazten gaituena. Oso garrantzitsua da hori, joerak saihesteko eta dibergentziatik abiatzeko. Hirugarrenik, aurrea hartzeko adimena. Azkenik, harremanetarako eta komunikaziorako gaitasunak. Lau adimen mota nagusi horiek lantzen saiatzen gara, teknika eta dinamika batzuen bitartez. Tailerrak arinak eta dibertigarriak izan daitezten saiatzen gara.

[A.G.]: Tailer horien berezitasu netako bat herritarren eta udal ordezkarien partaidetza da; ahal bada, teknikariena zein politikariena. Hartara, Korok aipatu dituen gaitasun horiek herritarrek eta udal ordezkariak lantzen dituzte. Eta horrela puskatu nahi da ohiko ikuspegi teknokratikoa; hau da, dakiena eta erabakiak hartzen dituen toki batean dago eta herritarrak beste batean daude eta nolabaiteko lehia dago. Herritarrek Udala konbentzitu nahi dute eta Udalak eragile sozialengan eragina izan nahi du gauzak ondo egi-



ten ari dela sinetsi dezaten. Horrekin puskatu nahi da. Gizarte-Lab proiektuan gauza bera eskatzen diegu herritarrei eta Udaleko ordezkariari, gaitasun horiek biek landu ditzaten. Norberaren biografiaz baliatzen gara alderdi emozionalak eta horrelakoak lantzeko eta biografietan ikusten da parekotasun handiak ditugula. Horrek asko lotzen du.

**Udaleko ordezkariak parte hartzeak eragina izan dezake jendartearen egin behar den inbertsio horretan, ezta? Finnean, erabaki politikoek gindatzen dituzte inbertsioak.**

[A.G.]: Bai, bai. Udaletara jotzen dugunean, garbi ikusten dute tresna berriak garatu behar dituztela. Badakigu ohiko tresnak noraino iristen diren eta zein muga dituzten. Baina gaur egungo erronka horien aurrean, egiteko moduek ere desberdinak izan behar dute, eta udal askotan horren jakitun dira. Beraz, berriek ere arrisku batzuk hartzen dituzte eta ausartak izaten dira.

**Izan ere, pertsonengan eta jendartearen inbertitzea ez da izan politikan bide ohikoena.**

[K.M.]: Ez, baina bada joera bat, eta leku batzuetan aldaketa ikusten da. Udalerri askotan adibide onak ikusten ari gara. Pixkanaka, baina bagoaz. Tailer horietan kide guztiak maila berean jartzen ditugu eta hori, batzuetan, ez da erraza. Gu saiatzen gara konfiantzazko giroa sortzen, eta talde horietan inor ez da bestea baino gehiago. Horrek asko laguntzen du. Adibidez, alkatea eta txistulari taldeko kidea elkar-tzen badira eta beren biografiaz partekatzen badituzte, gizatasuna sortzen da eta



dagoeneko beren bizitzaren parte bat partekatu duten bi pertsona dira, izen-abizenekin. Hor lotura bat sortzen da.

[A.G.]: Saiatzen gara posizio pertsonaletatik abiatzen, ez bakoi-tzak okupatzen duen postutik edo daukan jakintzatik.

da jasagarria. Gero eta haur gutxiago ditugu, bakardade gero eta handiagoa dago, eta nolabaiteko sare soziala behar dugu. Udal askok ikusten du behar hori; baliabideak iristen diren tokiraino iristen dira, enpresa pribatuak negozioa dagoela ikusi du eta indarrez sartu da, baina komunitatearen beharra oso nabaria da. Ez bagara komunitate hori lantzen hasten, jai dugu.

[A.G.]: Azken urteotan etengabe ari gara komunitateaz. Inoiz baino gehiago mintzaten gara komunitateaz eta inoiz baino gehiago dago gainbehera. Askotan komunitatearen ikuspuntu idealizatu samarra daukagu, komunitatearen indarraren presentzia hori izan dugu eta gure herentzia historiko bat izan da segur aski. Baina ezin dugu pentsatu duela hamarkada batzuetako komunitate hori bueltatuko denik, hori ez da bueltatuko. Komunitate berriak beharko ditugu eta ez diogu forma eman horri. GizarteLab proiektuak anbizio hori izango luke. Garbi ikusten dugu komunitatearen indarra behar dugula, baina ez dakigu hori martxan jartzen. Egungo gure bizimodua erritmo oso bizian doa, eta kostatu egiten zaigu besteei denbora eta ahalegina eskaintzea. Ikusker hori galeran dago eta forma eman beharko diogu gaur egungo terminoetan eta baldintzetan. Ez dugu berreskuratuko 60ko hamarkadako komunitatea, 70eko hamarkadakoa. Baina komunitate bat, bai, eraiki beharko dugu, besteak beste erronka horiei aurre egiteko.

**Adimen emozionalari lotutako gaitasunak aipatu dituzue. Herdoilduta omen daude.**

[K.M.]: Nik uste dut zementu soziala dela berreskuratu behar duguna. Lehen komunitatea osatzen zuten loturak galtzen ari dira, gero eta indibidualistagoak gara eta hori ez

**Komunitate bat josi eta eraiki beharko dugu. Egungo hariekin, ezta?**



[K.M.]: Hari berriak eta modu berriak beharko dira. Aisialdi-ko ohiturak aldatzen ari dira, gure gazteak beste modu batera dibertitzen dira. Malgutasunez jokatu beharko da. Enpresetan, erakundeetan, elkarteetan... errelebo falta handia ikusten da. Modu berriak topatu beharko dira komunitateak sortzeko eta elikatzeko. Horretan ari gara.

**«Nekearen jendartea» terminoa gero eta maizago entzuten da. Ez da ezer pizteko tesuingururik onena...**

[K.M.]: Gakoa izan daiteke komunitateak dauzkan onurak bistaratzea. Askotan esaten da 'parte hartu behar duzu'. Baina, zertarako? Hausnartu beharra daukagu nolako komunitatea nahi dugun, norberak zer eman diezaiokeen, komunitateak zein onura ekartzen dituen...

**Aldaketa soziala eta trantsizioa. Ez dira gauza bera, ezta? Herritar pasiboak daude lehenengoan, datorrena hartzen dutenak eta horretara moldatzen direnak. Herritar aktiboak bigarreanean, aldaketa horietan eragin nahi dutenak. GizarteLabek bigarreana aktibatu nahi du.**

[A.G.]: Gure gizarte modernoa eta oparoa da testuinguru orokorretik begiratuta eta, segur aski, maila horretako gizarte guztiek partekatzen dituzten ezaugarriak ditu; nekea eta energia kolektiboaren falta. Aldaketa soziala eta trantsizioaren kontzeptuak parean jarrita, aldaketa soziala litzateke datorkiguna, arrapaladan iristen dena, kontrolatu ezin duguna eta gainjartzen zaiguna. Aldiz, trantsizioaren kudeaketa egin daiteke. Aurrea hartu, presta-



## KORO MURO ARRIET

*«Gero eta haur gutxiago ditugu, bakardade gero eta handiagoa dago eta nolabaiteko sare soziala behar dugu. Udal askok ikusten du behar hori; baliabideak iristen diren tokiraino iristen dira, enpresa pribatuak negoziario ikusi du eta indarrez sartu da, baina komunitatearen beharra oso nabaria da»*



tu, gaitasun batzuk landu, energia kolektiboa aktibatu, aldaketa sozialak dakartzen elementuei erantzun bat emateko modua aurkituko dugula sinetsita. Eta erantzunak beti izan behar du tokian tokikoa eta gure baliabideetan oinarritua. Guk defendatzen dugu gure baliabideetan eta gaitasunetan oinarrituta, aurkitu dezakegula erronka sozialen aurrean erantzun bat. Eta erantzun horrek espezifikoa izan behar du, gure izaeran eta izateko moduetan ardaztua; tokian tokikoa eta komunitatean oinarritua.

**Pozgarria da, itxaropenerako leiho bat dirudi.**

[K.M.]: Zalantzarik gabe, garaiz gaude gauzak aldatzeko. Guretzat oso pozgarria da herri batean proiektuarekin ari garenean parte hartzaileen erantzuna jasotzea. Askotan esaten dute asko ikasi dutela, asko pentsatu dutela eta, gainera, oso ondo pasatu dutela. Guretzat garrantzitsua da parte hartzea modu dibertigarrian bizitzea, ez zama bezala. Sentsazioa da zerbait piztu duzula pertsona horrengan, zerbait aktibatu duzula. Guk hasieran 'birusaren' kontzeptua erabiltzen genuen. Gero pandemia etorri zen eta pentsatu genuen ez zela oso kontzeptu egokia. Orain 'ama orea' erabiltzen dugu. Esaten dugu GizarteLaben parte hartzen dutenak ama orea direla eta hori zabaldu egingo dela ondoren. Legazpin, adibidez, 2019tik urte guztietan segidan ari gara lanean. Egia da taldea handitu egin dela, komunitatea hazi egin dela eta ama ore horren filosofia zabaltzen ari dela. Pixkanaka badoa kutsatzen espiritu hori.



## AUXKIN GALARRAGA EZPONDA

*«Guk defendatzen dugu gure baliabideetan eta gaitasunetan oinarrituta, aurkitu dezakegula erronka sozialen aurrean erantzun bat. Erantzun horrek espezifikoa izan behar du, gure izaeran eta izateko moduetan ardaztua; tokian tokikoa eta komunitatean oinarritua»*



[A.G.]: GizarteLab martxan jarri den herrietan badago talde bat gai batzuk lantzen ari dena. Horri eman nahi diogu balioa, herrietan egon daitezela herritar aktiboak, erronkak lantzen ari direnak. Hori da gure erronka, ama ore hori sortzea.

**Zenbat herritan jarri da martxan GizarteLab? Zer egin behar du herri batek interesa izanez gero?**

[K.M.]: Dagoeneko dozena bat herritan jarri dugu martxan. Programak hiru fase dauzka, bakoitza tailer zehatzekin. As-tean behin edo hamabostean behin elkartzen gara, fasearen arabera. Bizpahiru hilabeteko prozesua izan daiteke, baina malgutasunez jokatzen dugu beti. Udalak jarri behar du gurekin harremanetan eta ez dugu baliabide askorik behar tailerrak aurrera ateratzeko. Oraingoan, honako herri haue-tan egon gara: Legazpi, Muti-loa, Deba, Beasain, Donostia, Irun, Orio, Laudio, Gernika, Gasteiz eta Bilbo.

**Pentsatzekoa da erronkak desberdinak izango direla herriaren tamainaren arabera.**

[A.G.]: Bai, herriaren tamainak garrantzia dauka. Herri desberdinetan atzematen dugu ama orea desberdin dagoela; herri batzuetan indartsuago dago eta beste batzuetan, ahulago. Udalerrri bakoitzak bere ezaugarriak dauzka eta soziologikoki desberdinak dira. Herriaren tamaina ez ezik, bertako herritarren aktibazio maila desberdina da herriaren nortasunaren arabera. Bakoitzaren soziologia eta bertan sortzen den taldearen ezaugarriak oso garrantzitsuak dira. Eta, noski, baita Udalaren inplikazio maila ere.

{ gertuko  
planak }



Lapurdi / Baiona

# Baionako Euskal Museoa, euskal kultura eta historiaren gordailu

Irati ESPARZA GUIMON



**D**agourette etxeko harrizko hormen artean, euskal arimaren esentzia atzematzen da. Baionako Euskal Museoa gure iraganaren eta identitatearen ispilu diren objektu eta artelanak topa daitezke. Kortsarioen kaian, museoaren historia 1922an hasi zen XVII. mendeko eraikinean, Ipar Euskal Herriko kultura eta historia aberatsari arreta eskaini nahian. Hasieran, bilduma txiki bat besterik ez zuen, baina azkar handitu zen, bertako bizimodua, artisautza eta artea ilustratzen dituzten objektuekin. Gaur egun, museoak 70.000 objektu baino gehiago ditu, arlo askotarikoak: arkeologia, arte sakratua, euskal etnografia, arrantzale tresnak, baserrikoak... Horiek guztiek euskal bizitzaren eta lanaren iraganeko ohiturak eta bizimodua ulertzen laguntzen dute eta Baionako Euskal Museoa euskal kultura eta historiaren gordailu izatera ekarri dute.

## ERAKUSKETA IRAUNKORRA

Euskal gizartearen bizimoduaren isla den erakusketa iraunkorra eskaintzen du museoak, 2.000 objektu ingururekin, eta horiekin bertako biztanleen lanbideak, sinesmenak eta eguneroko bizitza nabarmentzen ditu. Euskal Herriko historiaurreko aztarnak ikusgai dira bertan, Paleolitotik erromatar garaira arte. Bilduma horretan, harri tresnak, zeramika zatiak eta antzinako hilobiak aurki daitezke. Elizetako altzariak, eskulturak eta margolanak ere bilduak dira. Berezi aipagarriak dira XIV. eta XV. mendeetako egurrezko eskulturak eta altxorak. Museoak Euskal Herriko dokumentu historikoen bilduma zabala lortu du urteetan zehar, liburu zaharrak, eskritura zaharrak eta eskuz idatzitako dokumentuak gordez. Horiek euskal hizkuntza eta kulturaren garapena ulertzeko ezinbesteko dira gaur egun. Horiez gain, euskal artistak eta Euskal Herriarekin lotutako margolanak eta eskulturak deskubritzen ahal dira; adibidez, Elias Salaberria eta Ignacio Zuloaga margolarien lanak. Bilduma iraunkorrak museoaren xedea argiki erakusten du. Ez da bakarrik iraganeko kultura eta bizimoduak erakustea, euskal nortasuna eta kultur identitatea sustatzea eta bizirik mantentzea ere bada helburua.

1924ko ekainaren 3an ireki zituen atea ofizialki. Aurten, beraz, ehun urte bete ditu. Horren kari, 2024ko ekainaren





21etik 2026ko urtarrilaren 4ra, “100 urte jadanik! Museoa bere mendean” izeneko erakusketa kronologiko berezia antolatu du, XX. mendetik gaur arte bildutako 200 objektu baino gehiagorekin. Lekua ezagutzeko modu desberdina da, museoaren historiaren garai garrantzitsuenetan zehar bidaiatuz, garai bakoitzeko giroa ematen saiatuz.

Bisita kronologikoki antolaturiko zazpi gelatan antolatua da, non XX. mendeak Ipar Euskal Herriko ondare kulturean izan duen ibilbidea erakusten den hainbat objekturen bidez. Helburua museoaren historia Baiona hiria historiarekin duen lotura azaltzea eta kontatzea da, museoko kontserbatzaileak omenduz, bereziki William Boissel, museoa 1924an estreinatu zuena.

#### **BIDEAN OZTOPOAK IZAN DIRA**

Hasieratik, Euskal Museoak oztopoak izan ditu. Lehenik, Dagourette etxe osoa eskuratzeko zailtasunak, gero Lehen Mundu Gerrak eragindako giza basamortua. Museoak bere ospe garaia ukan zuen 30eko hamarkadan, Urte Zoroen garaian, non euskaldunak zein turistak biltzen ziren eraikineko geletan gerraren amaiera ospatzeko. Kultura eta estiloak partekatzeak moda eta arkitektura “erregionalista” modernizatu zituen. Euskal-biarnesak Pariseko Erakusketa Unibertsalera joan izana, beren lurraldea sustatzeko, horren adibide da. Baina gorabeherek segitu zuten museoaren historia astintzen. Bigarren Mundu Gerraren etorrerak artelanak oheekin ordezkatu zituen: museoa soldaduen egoitza bihurtu zen. William Boissel eta bere segida hartu zuen Jean Ithurriague kontserbadoreek hamar urte pasatu zituzten zaharberritzen, bildumak handitzen eta erakusketa berriak antolatzen. Horien artean, gaur egun ezagunenetari-koa den “Pilotarien museoa” bilduma.

60ko hamarkadako turismo masiboari esker, museoa berindartzen hasi zen. Modernizazio prozesu bat abiatu zuen, teknologia berriak eta kontserbazio teknika aurreratuak txertatuz. Garai berean, euskal artisten obrak ere biltzen hasi ziren, eta horrek museoaren bilduma artistikoaren balioa handitu zuen. Museoak indarra hartu ahala, bere sortzailearen hitzek ere indarra hartu zuten. «Guretzat, nor garen jakitea. Jendearentzat, nora iristen garen jakitea».

Zazpigarren eta azken gela gaur egungo museoari eskainia zaio, XXI. mendeari, Euskal Museoa jadanik lantzen ha-

Alboko orrialdean,  
Baionako Euskal  
Museoa kanpoko  
aldetik. Lerro hauen  
gainean, museoko  
zenbait irudi.  
Patxi BELTZAIZ

### **i jakinbeharrekoak**

Museoaren ordutegia:  
astearte, asteazken,  
ostiral, larunbat eta  
igandeetan, 10:00-18:00  
bitartean. Ostegunetan,  
13:00-20:00 bitartean.  
18:00etatik aurrera,  
sarrera dohainik  
hitzaldiak, musika eta  
dantza emanaldiak, film  
proiekzioak eta beste  
ikusteko.

Prezioa: 26 urtetik  
beherakoentzat,  
dohainik. Prezio osoa, 8  
euro, eta prezio  
murriztua, 5 euro.  
Hilabeteko lehen  
igandean, dohainik  
denentzat.

Museoa Baiona Ttipiko  
hirigune historikoaren  
bihotzean dago, Errobi  
ertzean, Santa Maria  
katedraletik bi pausora.

si den kultur garaia. Bertan, gaur egungo erronkak azpimarratuak dira, etorkizunari begirakoak. Izan ere, museoa komunikabide zahar batekin konparatzen ahal da, ireki zenean, ‘ondarea’ aipatzen bakararra zelako. Baina, gaur egun, kontaezinak dira ondarea, izan materiala edo immateriala, babesteko xedea duten erakundeak, eta horrek galdera nagusi bat sortzen du: dena desmaterializatua den aro digital honetan, ba ote da etorkizunik museoentzat? Euskal Museoak gauza zehatzetara itzuli behar dela uste du, mundua ez delako birtuala eta, digitalizazioak ekartzen dituen onurak kontuan hartuta ere, museoak zerbait salbatzen dutelako, beste inork egiten ez duena: objektuak. Eta objektuek kontatzen dute historia. Gainera, objektuak belaunaldi batetik bestera transmititzen diren lurralde batean izanik, beharrezkoak dira; nahiz eta ohitura horretan haustura nabaritu duen Baionako Euskal Museoak. Are garrantzitsua goa da, beraz, objektu bilketarekin segitzea.

Erakusketak bi urteko iraupena du, bisitarien erreakzioak aztertzeko, etorkizunerako baliagarriak baitira. Izan ere, teknologia berriek informazio mugagabea, bat-batekoa eta doakoa eskaintzen badute ere, museoak historiaren aukeraketa egiaztatua eskaintzen du. Museo bat ez da erakusketara mugatzen; aitzitik, antzinako objektuak bildu eta zaharberritzen ditu, eta etorkizunera eramaten ditu. Leku babestua, historia eta ondarea betiko grabatzeko.

Horrez gain, museoaren mendeburua ospatzen segitzeko, larrazkenean, 2024ko urriaren 18tik 2025eko urtarrilaren 5era, “Obra Gomituak” erakusketak ohiko bilduma iraunkorra apainduko du beste museo handi batzuek utziko dituzten berrogei bat koadro eta artelanekin. Helburua «bilduma iraunkorarekin ispilu efektu bat sortzea da, publikoari begirada berri bat eskaintzeko», azpimarratu dute ehun urte bete dituen museoaren arduradunek. Horri esker, bereziki, bilketari buruz hausnartu nahi dute: zergatik objektu hori eta ez beste bat? Zer dio gutaz? Eta gure gizarteaz?

Baionako Euskal Museoa, bere ehun urteko historian zehar, euskal kulturaren eta historiaren zaindaria izan da. Urteurren hau aukera paregabea da museoak egindako lana aitortzeko eta etorkizunera begira jartzeko. Euskal Herriaren ondarea gordetzea eta transmititzea du helburu, eta horretan lanean jarraituko du datozen mendeetan ere.



**Leire LAREKI SANCHEZ - Eneko MENDILUZE PLAZA**  
Psikopedagogo eta psikologoa

## Aro digitaleko bikote eredu ugariak



**B**ikotea izatea zer den deskribatzea ez da lan erraza. Gaur egungo Aro Digitaleko aniztasun sozialean eredu ugari erakitzen ari dira etengabe.

Hala ere, definizio orokor bat eskaintzen ausartuko gara, non ziurrenik irakurle guztiak ez diren ase sentituko. Garai honetan, ohartzera, eguneratuta baino gehiago zaharkituta gaude eta seguru artikulua hau horren isla dela.

Behin hori adierazita, bikotearen definizioarekin ausartuko gara: bi pertsonak adostu duten eta beraien inguru sozialetik ezberdintzen den harreman forma berezia.

Aro Digitalean bizi gara eta publikoki aro aldaketa hori onartu ez dela deritzogu. Datorren astean hasiko den ikasturteko ikastetxeen edukia aztertu besterik ez dago hori ondorioztatzeke. Liburuaren arabera, ikuspuntu europazentristatik, Historiaurrea idazkeraren aurretiko garaia da; Antzinaroa, idazkeraren hasieraren eta Erromatar Inperioaren gainbeheraren artekoa; Erdi Aroak Amerikaren aurkikuntzan du amaiera eta Aro Modernoak, Frantziako iraultzan. Egungoa Aro Garaikidea da, baina, gure ustez, Aro Digitalean erabat sartuta gaude, pandemiak nabarmen elikatuta.

Aro berri honetan, non adimen artifizialaren indarra gero eta sakonagoa den, zein bikote eredu aurki ditzakegu? Zazpi ataletan 21 bikote eredu aurkeztuko ditugu.

### 1. Bikoterik gabeko pertsonak:

(1) Inoiz bikotekiderik izan ez dutenak, (2) bikotekide bila dabilenak eta (3) bikoterik nahi ez duten pertsonak.

**2. Bikoteak eta internet:** (4) Online harremanak (konpromisorik gabeko online harremanak, zibersexua edo sexting-a izan dezaketenak, *fastlove* ere deritzona) eta (5) bikote digitalak (teknologiaren bitartez elkar ezagutu dutenak eta sarearen bitartez harremanak direnak, bikote birtualak).

**3. Bikote anitzak:** (6) Bikote irekiak (bikotea osatzen duten pertsonak bikotetik kanpo harremanak izatea adosten dute fideltasuna kolokan jarri gabe) eta (7) bikote polimaitekorrak (hiru edo gehiagoren arteko sentimenduzko harremana, guztien jakintza eta onarpenarekin).

**4. Elkarbizitza iraunkorrik gabeko bikoteak (*Living Apart Together*):** (8) Bikote transnazionalak (herrialde ezberdinetan eta modu jarraituan denboraldiak elkarrengandik urrun igarotzen dituzten bikotekideak), (9) modu iraunkorrean urruti bizi direnak (*Long Distance Relationships*), (10) asteburuko bikoteak (asteburu eta oporretan elkarrekin bizi diren pertsonak, *Commuter Marriage*) eta (11) elkarbizitza gabeko bikotekideak, auzo edo herri berean bizi direnak.

**5. Elkarbizitza iraunkorra duten bikoteak:** (12) Izatezko bikoteak, Erregistro Zibilean, edo elizaren bitartekoak, (13) bikote mistoak (herrialde, arraza edo etnia ezberdinetakoak), (14) ikasketa edo diru-sartze bikoitza duten bikoteak, (15) bikote sozialak (arrazoi sozialengatik edo ekonomikoengatik mantentzen diren bikoteak, bikote hutsak) eta (16) elkarrekin eta bereziak dauden bikotekideak (elkarbizitza dute, baina sentimenduzko harremanik gabe, *Living Together Apart*).

**6. Bikotea eta seme-alabak:** (17) Seme-alabarik ez izatea erabaki duten bikoteak, (18) seme-alabak izan nahi eta ezin dituzten bikoteak, (19) habi hutsa duten bikoteak (seme-alaben emantzipazioa) eta (20) birsortutako bikoteak (bikote amankomunarenak ez diren seme alabak dituzten bikoteak, aurreko harremanetakoak).

**7. Bikoteak eta indarkeria:** (21) Bikote toxikoa (bat edo biak harremanengatik sufritzen ari dira, zaurgarritasun psikologikoa, dependentzia emozionala, tratu txar psikologiko edo fisikoa).



Bikote ereduak etengabe aldatzen diren errealitateak dira. GAUR8

Bikote eredu gehiago daudela jakin badakigu, denbora eta gizar-tearen poderioz aldatzen ari den errealitatea baita. Nekazaritzan oinarritutako gizar-tetik, non banantzeak ez ziren onartuak, gizarte industrialera emandako aldaketa handia izan zen. Gizarte postindustrialeko rolen arteko berdintasun eta intimitatearen negoziatuetatik gaur egungo gizarte digitalera eman den aldaketa ere sakona izaten ari da. Zer esango digu jaioberri batek 25 urte barru? •



{ koaderno } **Xabier IZAGA**

# Beldurtuta bizi den mamua eta beste mamu batzuk

**U**mea nintzela, gure etxean ez zegoen kuarto beltzik. Edo igual bai, baina etxe txikia eta familia handia izanda, ez zegoen hartarako lekurik. Urte batzuk joan dira ordutik, eta alaba bere kabuz bizitzera joan zenetik, haren gela dugu kuarto beltza, udan behintzat, beroa dela-eta egunez leihoa itxita eta pertsiana beheraino jaitsita egoten baitira. Hortxe kuarto beltza, bertara eramateko mehatxua nori egin ez daukagula. Eta benetako kuarto beltza da, homologatua. Atzo arratsaldean bertako armairua zabaldu eta mamua ikusi nuen, izara tolestuen gainean uzkurtuta. Egingo nuke berak ere ikusi ninduela eta nik bezala ezikusia egin zuela. Kalera irten aurretik, katu-jan pixka bat utzi nion hor barruan.

Labera irten eta Anjelmarri topatu nuen, aspaldiko, bai... Ezagutzen ez nuen gazte batekin, Eñaut, urte askotarako, bai berdin... Eta minutu bi eta hogeita hiru segundoko tartean zenbait gauza ikasi nituen: DBE ez dela derrigorrezko bigarren ezkontza, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta baizik; EPO akronimoak ez duela beti dopina adierazten, esate baterako Etxebizitzarako Prestazio Osagarria denean, eta Anjelmarik lehengo lepotik duela burua.

Immigranteek dirulaguntzak lortzeko egiten omen dituzten trikimailuen inguruan ari zen eta lagun batek kontatu ziona kontatu zigun. Lagun horren goiko bizilagunak ba omen du lan egin gabe dirulaguntza bat jasotzen duen hegoamerikar baten berri. Eñautek gogorarazi zion hegoamerikarrek ere jan ohi dutela, eta etxe batean bizi direla. Anjelmarik irribarre harroko batekin erantzun zion eta gero bere tesiaren oinarri zientifikoa astindu zuen: hegoamerikar haren emazteak soldata bat jasotzen du, berak ondo dakenez, emakume horrek bere lagunaren goiko bizilagu-

naren emaztearen lankide baten etxean lan egiten duelako, eta gainera EPOa ere jasotzen omen dute; dopina ez, ordea. Eñaut pentsakor zegoen, eta halako batean galdetu zion ea bere lagunaren goiko bizilagunaren emaztearen lankide hori abokatua den, eta baietz Anjelmarik, eta ea Misericordia kalean bizi den, eta baietz, nola dakizu, ba? Abokatu horren etxean lan egiten duen paraguaitarra ezaguna du Eñautek.

Berehala esango nuke, baina bai, Eñaut gizarte langilea da, emakume hari eta haren senarrari laguntzak eskatzeko esan zien gizarte laguntzailea, hain zuzen, «etxeko lan batzuk» egiteagatik –etxeko garbiketa egin eta amona zaintzea: paseoan atera, dutxatu, jan-tzi, afaltzen eman, erantzi, oheratu eta hurrengo goizean altxatzea...–, Anjelmariren lagunaren goiko bizi-

Umetan, mamua ohe azpian nuen gauero eta beldurra ematen zidan ohe ertzetik besoa ateratzeak. Egia esateko, nik ez nuen inoiz ikusi, baina jende askok ohartarazi zidan haren arriskuaz

lagunaren emaztearen lankide horrek ordaintzen dion soldata mixerablearekin ez daukatelako bizitzetik biek eta beren seme-alabek.

Umetan, kuarto beltzik ez baina mamua ohe azpian nuen gauero eta beldurra ematen zidan ohe ertzetik besoa ateratzeak. Egia esateko, nik ez nuen inoiz ikusi, baina jende askok ohartarazi zidan haren arriskuaz. Eraman edo jango ninduela, edo eramanez jango ninduela. Atzo behintzat ez zirudien goseak zegoenik, katu-jana ukitu ere ez baitzuen egin koitaduak. Ez dakit, ba, kuarto beltzean bakarrik, beharbada beldurtuta dago. Auskalo zer kontatu dioten giza jendeaz. •

# HAURRAK ETA AUTOESTIMUA

## Haurren gehiegizko autoestimua eta «enperadore txikiak» hazteko arriskua

**O** nena zara», «ederrena zara», «taldea ez litzateke ezer izango zu gabe» edo «besteak zu bezalakoak izan beharko lirateke» esaldiak eskaintzen dizkiete guraso askok seme-alabei, autoestimua areagotzeko eta beren buruaz duten balorazioa indartzeko. Baina adituek ohartarazi dutenez, askotan arreta handiegia jartzen zaio autoestimua txikiari, haurren garapenean eragina izan baitezake, baina ez dira kontuan hartzen autoestimua handiegia izatearen ondorioak, eta, horren ondorioz, haur indibidualistak eta egozentrikoak hazi daitezke, enperadore txikiak, beren buruarentzat zein besteentzat kaltegarriak diren jokabideak dituztenak. Izan ere, Washingtongo Unibertsitateko ikerketa baten arabera, haurren autoestimua bost urte baino lehen hasten da ezartzen.

«Autoestimua baxuaren beldur gara, eta uste dugu ona dela oso handia izatea», adierazi du Sylvie Pérez UOCeko Psikologia eta Hezkuntza Zientzien Ikasketetako irakasleak. «Autoestimua handiegia duten haurren jokabide klasistak sor daitezke, autoritatearekiko mespretxua, gehiegizko lehia-kortasuna, besteei nik zenbat balio dudana eta, beraz, besteek zein gutxi balio duten erakusteko beharra», ohartarazi du haurren hezteko orduan haien autoestimua gehiegi puztearen arriskuez.

Gainera, hori larriagotu egiten da gurea bezalako gizarte lehiakor batean, non onena izatea helburu handienetako bat den. Autoestimua altua eraikitzea ez da txarra, baina

**JENDARTEA / GAUR8**

Gehiegizko autoestimua haur indibidualisten garapena eragin dezake. Adituek mahai gainean jarri dute, dagoeneko, joera horren arriskua. Autoestimua baxuaren beldur, haurren autoestimua gehiegi haizatzea gerta daiteke eta horrek indibidualismoa eta egozentrismoa elikatzen ditu.

kontuz ibili behar da, irakasleak ohartarazi bezala. «Haurrek oso onak eta garaiezinak direla sinetsita haziz gero, adinez nagusi direnean, ezin izango dute beren ekintzen arriskua neurtu, ez eta objektibotasunez jokatu ere. Beren burua nagusi ikusten dute eta onak eta baliozkoak direla uste dutenez, besteak gutxiesteko joera daukate, nartzisismo handiz».

Arazoaren zati bat gurasoek beren seme-alabak hezteko orduan duten segurtasunik eza da, Ferran Marsa UOCeko Psikologia eta Hezkuntza Zientzien Ikasketetako irakasleak dioenez. «80ko hamarkadan jaio-tako belaunaldia izan da, seme-alabak izan dituen haurtzaroarekin eta gurasoekin izan zuen harremanaren bidez gurasotasunari buruz hausnartu duen lehena, eta hori eremu klinikoan ikusten da. Orain, haurrek dituztenean, bizi izan dituzten esperientziak proiektatzen dituzte, eta horrek batzuetan gaizki-ulertuak eragiten ditu».

Gurasoek bizi izan zuten testuingurutik hain desberdina den testuinguru horrek apur bat galtzea eta ezer zalantzan jartzen ez zuen belau-



naldi batetik dena zalantzan jartzen duen belaunaldi batera igarotzea eragiten du. «Ustedut mutur batetik bestera igarogarela, hezkuntza-eredu frankista edo postfrankistetatik errealtatetik ihes egiten duten beste batzuetara, autoestimuari buruzko teoria pedagogikoetatik haratago inolako ebidentziarik gabe».

### INTERNET ETA GURASO IZATEA

Beste faktore batzuek ere eragiten dute haurren autoestimua eraikitzeke orduan. Alde batetik, Marsak uste du aitatasuna eta amatasuna negozio bihurtu direla, guraso on bategen nolakoa izan behar duen edota guraso txar bat nolakoa den markatzen duten jarraibide eta gidekin, eta gurasoengan segurtasunik eza eragin dezaketela.

«Tranpa bihurtu da; gurasoek ez badute negozio mediatico hori kontsumitzen, gaizki sentitzen dira edo beste guraso batzuekin alderatzen dute beren burua». Izan ere, bere ustez, jardunbide txarrak ez dira existitzen, «baina, agian, gurasoek autokritika eta autohausnarketa egin beharko dute, gauza horietako asko metodo bat saltzen saiatzen diren iragarkiak direla jabetzeko eta pediatrek esaten dietenari kasu handiagoa egiteko», dio Marsak.

Interneten, gizarte-sareen eta mezularitza-zerbitzuen presentzia ere elementu garrantzitsua bihurtu da gazteen autoestimua garatzeko orduan, hala gutxiegi nola gehiegi. Perezen arabera, «garrantzitsua da haurren arteko



harremanetan bitarteko hel-  
duak egotea. Internetekin, bi-  
tartekaritza hori desagertu  
egiten da, ez dago haurrak ja-  
sotzen duen feedbacka uler-  
tzen laguntzen duen heldurik.  
Arazoa ez dira pantailak, hel-  
duaren absentzia baizik. Ho-  
rrek eragin zuzena du autoes-  
timuan, ez baitakigu nola  
eragiten duen heldu bat ez  
egoteak erregulatzeko».

Internetek irudikatzen  
duen mundu idealizatuak ez  
du laguntzen; autoestimu ba-  
xua eragin dezake lortzen ez  
bada, eta gehiegizko autoesti-  
mia, haurrak bere burua bertan  
islatuta ikusten badu. «Psikologian,  
bi motatako niak daude: ni  
ideala eta ni erreala. Izan nahi  
dudana da ideala, eta egunero  
naizena, erreala. Sare sozialek  
oso maila altua jarri dute ni  
idealean, eta ez gara jabetzen  
horrek sortzen duen frustrazioaz.  
Hori da teknologia berrien  
perbertsioa: garaia baino lehen  
handitzen ari dira haurrak».

#### OREKA DA GAKOA

Orduan, zein da autoestimu  
baxua ez ezik, gehiegikeria  
ere saihesteko gakoa? «Oreka  
da gakoa», dio Perezek. «Au-  
toestimu handia badut, ez  
dut besteen beharrik; oso  
txikia badut, ezin dut ezer  
egin besteak gabe. Autoesti-  
mu handia izatea da egokie-  
na, baina besteei entzuteko  
gai izatea, haien pentsamen-  
duekin eta sentimenduekin  
enpatizatzea, haien iritziak  
txertatzea».

Izan ere, irakasleak dioenez,  
ia beti azpimarratzen da au-  
toestimu baxua, baina ez dira  
kontuan hartzen gehiegizko  
autoestimua eragozkoak; gu-  
raso bat beti saiatuko da bere  
semeak edo alabak ahalik eta

**«Autoestimu handiegia duten haurrengan  
jokabide klasistak sor daitezke, gehiegizko  
lehiakortasuna, nik zenbat balio dudan eta  
besteek zein gutxi erakusteko beharra»**

**«Beti saiatu behar da orekatzen. Etorkizuna  
egokitzeko eta malgutzeko gai diren pertsona  
hori baina ez da. Zurrunez edo  
autoritarioek sufritzen dute gehien»**

altuena izan dezan, maitasun,  
amatasun eta aitatasun ona-  
ren seinale gisa. «Beti saiatu  
behar da orekatzen. Etorkizu-  
na egokitzeko eta malgutzeko  
gai diren horien baina ez da.  
Zurrunez edo autoritarioak

Autoestimu baxua bezain  
kaltegarria izan daiteke  
altua. Orekan dago gakoa.  
GETTY IMAGES

diren pertsonak sufritzen du-  
te gehien».

Marsa bat dator: bere ustez,  
erdiko puntu hori da ideala  
haurren autoestimua garatze-  
ko orduan, nahiz eta beti erra-  
za ez izan. «Aita txarraren edo  
ama txarraren kontzeptua se-  
me-alabak traumatizatzea  
saihesten duten praktikekin  
lotzen da. Erdibide bat aurkitu  
behar da haurrak bere ekin-  
tzen ardura har dezan, oso  
gauza gizatiarra delako eta au-  
toestimua garapeneraren  
parte ere badelako».

Halaber, gurasoen, eskola-  
ren eta osasun-zentroen arte-  
ko komunikazioa indartu  
behar dela adierazi du, hau-

rren nortasunaren garape-  
nean eta egokitzapenean esku  
hartzen duten eragile nagu-  
siak baitira.

Haurren autoestimua  
gaian oraindik ez dago ikerke-  
ta askorik, batez ere Estatu es-  
painolean, eta, beraz, zaila da  
behar bezala garatzeko jarrai-  
bide zehatzak ezartzea. Euro-  
pa mailan, «Health Behaviour  
in School-aged Children»  
(HBSC) ikerketa aurki daiteke,  
eskolatutako gazteen jokabi-  
deei buruzko proiektua, Osa-  
sunaren Mundu Erakundeak  
(OME) babestua. Baina, adi-  
tuen esanetan, «metodologi-  
koki eremu konplexua da eba-  
luatzeko orduan».










Amaia BALLESTEROS

IRRITZIA:

# LUR AZPIKO ABENTURAK





## Bungalow batean

**Itzea URKIZU  
ARSUAGA**

**B**ungalow batean dena da zirrikitu, dena hots, dena txiki. Harraska ere estuegia da, lapikoari xaboia eman eta gero uretan pasatzeko, iturriko urak sukalde osoa ziprztindu gabe. Eskerrak kanilaren atzeko leihoari: landaretxo berdeak erakusten dizkit harrikoa egiten dudan bitartean, eta sekulako sosegua sentitzen dut.

Kanpinen unibertsoan, galaxia burgesa da bungalow-ena, askorentzat: kanpinen egon nahi dutenen aukera, kanpinzale izan gabe. Eztabaida horri iskin eginda, horixe izan da gure aurtengo aukera, bi haur txiki, haien loak, haien arropak, haien otorduak, haien jolasak, haien kremak, haien bainujantziak, haien kas-

ketak, haien kantinplorak, haien uretako beturrekoak, haien toallak, haien pijamak eta gure oporrak lapiko berean koiznatzen saiatzeko.

Su baxuan aritu nahi genuen, baina, tarteka, txinpartadun sukaldea izan da gurea, eta bikotekidea eta biok izan gara sua itzaltzen eta amantalak zuri mantentzen saiatu den parea. Flanbeatua izan baita gure plateren ukitu berezia, eta intentsitatea, oporraldiaren zaporea.

Bat ez bada, bestea. Titia ez bada, pixa. Igerilekua ez bada, siesta. Fardela ez bada, dutxa. Probatu ez duenak ez daki zer den hau. Garai bateko abuztuetan txosna batean abestuko nuen leloa igerilekuko hamakan errepikatu dut orain neure baita-

rako. Idazten ari naizen hau ez baita inongo panazea: bizitzako fasearen eta norberaren egoera pertsonalaren arabera, oporrek tarteka uzten diote opor-porea izateari, lan eskergak eta dedikazio mental eta fisikoak eraginda. Zalantza da ia gero errealitate hori garden-garden kontatzen ote diegun lagunei, uda amaierako oturuntzan; badakizue, batzuen sukaldeak udan ere Michelin izar...

Amaitu dut harrikoa, eta nire kexen iturria itxi. Aurtengo uda, intentsitateak intentsitate, irakaspen izugarria izan da, eta pribilegioa ere bai, elkarrekin hainbeste denbora pasatu ahal izateagatik. Bada nahikoa aitzakia haurrak lokartu eta bungalow atarian bi O, Oreakin topa egiteko. •

## Zorionak, Magale!

**Miren AZKARATE  
BADIOLA**

**E**rditze momentua, dudarik ez dut, arrazoi batengatik edo besteagatik, mugarri bat da hori desiotik egitea hautatu duen edozeinentzat. Poza eta beldurra aldi berean, momentua bizitzeko nahia edo azkar pasatzekoa... Sentimendu eta emozio asko nahastuak, oso intentsioak denak, momentuak berak hala eskatzen duelako.

Gure amonen garaian etxean erditzen ziren halabeharrez, eta duela ez hainbeste urte, ospitaleetan erditzera pasatu ginen, beste aukera ia guztiz ezabatuz erabaki ahalmenetik.

Hala ere, duela 10 urte inguru, Klara eta Josune izeneko bi emaginek Magale sortu zuten, haien irakasle izandako beste

emagin batzuen lekukoa hartuta, etxean erditu nahi zutenei laguntzeko. Urteotan guztiotan, bi izatetik bost (Maria, Bakartxo eta Laura dira beste hiruen izenak) edo, batzuetan, sei emaginez osatutako ekipo bat izatera iritsi da. Urteotan, erditze gutxi artatzetik erditze ugari artatzera pasatu diren emakume esperientziadun ez osatutako taldea da. Etkez etxe, Euskal Herriko herri eta auzoetako etxeetan ibilitzen dira, prozesu hori ahalik eta era duinenean akonpainatzen.

Gaiari buruz iritzi ezberdin asko dauka, epaiak eta ezjakintasun handia ere bai (nigandik hasita). Baina informazioa bilatuz gero, beraiek ezagutu ondoren eta beste herrialde batzuetako egoerak ezagutu ostean, argi dut aukera bat izan

beharko lukeela erdituko den pertsona ororentzat. Europako herrialde batzuetara begiratuz gero, osasun publikoan sartutako aukera da, eta hori da Magalek urte hauetan egin duen aldarrikapen nagusietako bat, gaur-gaurkoz, modu pribatuan –eta militantean, portzierto-funtzionatzen duen elkarte baina. Nahi duenak –ziurrago sentitzen delako, arriskuko erditzea delako edo dena delakoa– ospitalean erditzen jarraitu dezala, baina etxean erditu nahi duenak etxean erditu ahal izatea erabakitzeko eskubidea izan dezala.

Zorionak eta eskerrak asko Magale hamar urte hauengatik, egin duzuen eta oztopoak oztopo egiten duzuen lan guztiagatik! •



## Maitane MARTÍNEZ EGUILUZ

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

# Mundu guztia konektatuta dago

**noiz gertatu zaizu pertsona berri bat ezagutzea eta, sorpresa, biok beste pertsona bat, pertsona bera, ezaguna izatea?** Izan ere, hori ez da hain arraroa: munduko edozein pertsona beste edonorekin konektatuta egon daiteke bost bitartekari dituen ezagunkate baten bidez. Horrela, sei urratsetan bakarrik denok konektatuta gaudela! Horri 'sei bereizketa-gradu' teoria' esaten zaio. Modu sinplifikatuan, kontuan hartu honako kate hau:

1. Zure laguna ezagutzen duzu.
2. Zure lagunak bere laguna ezagutzen du.
3. Lagun horrek beste lagun bat ezagutzen du.
4. Eta horrela, hurrenez hurren...

Seigarren konexioan, teorikoki, planetako edozein pertsonarengana irits zitezke.

**Teoria 1929an proposatu zuen, lehen aldiz, Frigyes Karinthy hungariar idazleak "Chains" ipuinean.** Ideia ho netan oinarritzen da, alegia: ezagunen kopurua esponentzialki hazten da kateko lotura bakoitzarekin, eta, beraz, lotura gutxi batzuk baino ez dira behar edozein pertsona munduko biztanle guztiarekin konektatzeko.

Kontzeptuak arreta handia bereganatu zuen 1960ko hamarkadan, Stanley Milgram psikologo estatubatuarren "Small-world" esperimentu ospetsuari esker. Esperimentu horretan, Milgramek erabaki zuen ezezagun bati pakete bat bidaltzea Boston hirira (Massachusetts). Hori lortzeko, Omaha (Nebraska) eta Wichita (Kansas) hirietan ausaz aukeratutako pertsonen eman zien paketea. Bertan, Bostonen kontaktatu behar zen hartzaileari buruzko oinarritzko informazioa zegoen. Hura zuzenean ezagutzen ez bazuten, ezagutu zezakeen

norbaiti pasatu behar zioten. Harrigarria bada ere, paketea, batez beste, sei bitartekariarekin iritsi zen helmugara, eta horrek Karinthy-ren hipotesiari sinesgarritasuna eman zion.

Urte batzuk geroago, 2011n, Facebookek "Anatomy of Facebook" izeneko ikerketa egin zuen, bere plataformako erabiltzaile aktibo guztiak inplikaturik; guztira, 721 milioi kide (munduko biztanleriaren %10 inguru). Ikerketan, Facebookeko erabiltzaileen arteko bereizketa-graduak egiatzatu zituzten. Aurkikuntzak harrigarriak izan ziren: erabiltzaile-bikoteen %99,6 bost graduko bereizketa-arekin konektatuta zeuden (sei salto), eta horrek sei bereizketa-gradu teorian frogatu sendoa eskaintzen du, batez beste 4,74 kate-maila lortuz. Ikusi zuten, halaber, mundu osoa gradu gutxi batzuetara dagoen arren, litekeena dela erabiltzaile baten lagunak antzeko adina izatea eta herrialde berekoak izatea.

**Teoria horretatik ateratako jolasak ere badira, "Kevin Baconen sei gra-**

**duak", esaterako.** Demagun Kevin Bacon aktorea beste aktore batekin konektatu nahi dugula. Aktoreen arteko lotura biek film berean parte hartu izana da. Esate baterako, Elvis Presleyk "Change of Habit" (1969) egin zuen Ed Asnerrekin. Ed Asner "JFK"-n (1991) aritu zen Kevin Baconekin. Beraz, Presley eta Bacon pertsona bakar batek konektatzen ditu.

Baina jolas baterako erabiltzeaz gain, mundu errealean ere badu aplikazioa. Adibidez, LinkedIn eta Facebook bezalako plataformek sei bereizketa-graduaren printzipioa baliatzen dute erabiltzaileen esperientzia hobetzeko. LinkedInek, adibidez, zure konexioak erabiltzen ditu kontaktu profesional berriak iradokitzen.

Beraz, sei graduko bereizketaren teoriak erakusten digu benetan zein konektatuta gauden. Ideia literario gisa hasi zenak esperimentu psikologikoei eta ikerketa modernoek esker eboluzionatu egin du, guztiok elkarrekin gaituzten bideak harrigarriki laburrak direla azpimarratuz. Mundua uste baino txikiagoa da! •



LinkedIn eta Facebook bezalako plataformek bereizketa-graduaren printzipioa baliatzen dute. GETTY



# BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



POLICARPO ELOSEGI ANSOLA

## POLICARPO ELOSEGIK BASERRIKO FAMILIARI EMANDAKO BEGIRADA

Argazki xeble eta atsegin hau Tolosako Artxiipiaga baserrian egin zen 1898ko abuztuaren 28an eta baserriko familia irudikatzen duen erreportaje txiki baten parte da. Irudian, argazkilariak eszena gidatu du, eta pertsonaia guztiak oso modu zehatzean jarri ditu nahi zuen efektua lortzeko. Aita malabarismoak egiten ari da mahai gainean hankaz gora jarrita, hiru seme-alabak begira dituela. Semeetako bat soinu txikia jotzen ari da. Egilea Policarpo Elozegi Ansola da, jatorriz Tolosakoa zen argazkilaritza zalea. Policarpo Boinas Elozegui fabrikako eta Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzetako kide izan zen. Ski Club Tolosanoren sortzaileetako bat ere izan zen, 1909an, eta Tolosako zinegotzia, 1913an. Bere argazki artxiboak 1066 irudi ditu.



# bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde  
berrietara  
goaz



hurrengo  
ostiralean  
zure  
kioskoan  
**GARA** rekin  
doan

eta gainera...

**EUSKAL BASAFAUNA**  
ARGIAREN  
MUGETAN

**CALGARY**  
BIZITZA ONAREN  
HIRIA

**ERGA**  
ERMITA MENDIEN  
XARMA

**ASSUA**  
HARAN BATEN  
JAKINDURIA

**HIGHLANDS**  
HISTORIA ETA MITOEN  
APALATEGIA

**Elkarrizketa** Ana Maria Briongos, idazle orientalista eta bidaiaria **Bertatik bertara** La Encartada fabrika-museoa, industria iraultzaren harribitxia  
**Egin planak** Neandertalen unibertsoa, Bilboko Arkeologia Museoan; Flysch-a eta industria uztartuta, Itsasmuseumean;  
Talo Eguna Leitzan; Antzinako Musikaren Astea, Lizarran...

